


# BRECHAN

I GANDE eguardiarate batian, erretratista merkioyetako bat, Brechan ari zan, bost minuto bakoitzian erretratu bat egiten zubela; gauza abetan beti gertatzen dan bezela, bere inguruko ikusmiretan, arkitzen zan lau bost urteko neska begi urdiñ oso polit bat, eta bere alda-



## ANTIGUA BRECHA

*Casa llamada del «Santero» (café, copa y puro, un real).*

menian Anton Gezur kojua, Donostitik Hernanira joan zana amar minutuban..... (trenian).

Nola onen aldamenian zegüen neska polit ura, eta geldi aldi bat momentu artan izanik, galdetu diyo erretratistak:


—¿Nai dezu neska polit orren erretratuba egitia? jederki geldi-tuko da!

—Bai, nai badezu egin zazu—, diyo Gezurrek, aguardinta tejo piska bat botiaz.

Artu du neska eta esan diyo:

—¿Nai dezu illiabek obetosíago apaintzia?

—Bai nai badezu—, diyo Gezurrek.



ANTIGUA BRECHA. — VISTA DE CONJUNTO

Moldatu ondorian esan diyo berriz:

—Emenchen daukatan zinta urdiñ, onek, buru urre kolori ortan ederki emango liyoke, ¿ala da?

—Bai, neri ta zuri baño ederkiyago.


—¿Nai dezu lore polit abek ere eskuban jartzia?

—Bai, nai badezu; jarri, jarri.

Ala, gure neška ederki moldatu dubenian, atertu diyo beriala erretratuba.

Egin diyozka bere mejunkiak eta bukatu duenian Anton Gezurri emanaz, esan diyo:

—Tori, pezeta bat baliyo du, eta diyo Antonek parrez:



ANTIGUA BRECHA.—FONDA DE ELÍCEGUI

—Neri zer esaten dirazu.

—¿Zuria ezta neška?

—¿Neria? Gizona, nik eztet ez nešik, ez andrerik..... amik ere; uste det eztetala zekulan izan.

Baña.....

—¿Zer baño ta bakallua, orkonpon esanaz parrez an joan zan sağar-dotegira, lengo zorrak pagatzera.

VICTORIANO IRAOLA